

Gorka Urbizu

MUSIKARIA

## Nora deitu

**d**estino petrala euskaldun iritzi-emailearena. Lau hilabetero baino ez naiz orriotara gerturazten eta gaia aukeratzeko orduan buruhaustea izaten dut beti: “Zentsuraz hitz egingo dut berriz?”.

Pertsiana hautsia duen leihoa dakarkit gogora. Alegia, goizero esnatu eta ez gora ez behera, trabatuta dagoen pertsianaren kasua. Halakotan konponketa atzeratzen saiatzen gara, azken batean badaude leiho gehiago. Baina badakigu inoiz heldu beharko diogula gai horri eta behingoz aurre egin, konpondu.

Oleguer futbolariari gertatutakoa izan dut pizgarri. Jakina da Espainiako kirol-prentsa ez dela sekula politika aferetan sartzen: “aktoreak” “futbola horrelakoa da, *lo que diga el místico*” eta halako pitokeriak esatetik ateratzen ez diren bitartean, noski.

Barajasko biharamuneko *Marca* gainbegiratu –inork ba al du barrenik osorik irakurtzeko?– besterik ez dago. Oleguer tipo deserosoa da futbolaren *stablishment*-tarentzak, ez delako topikoen beste automatata bat. Baina prentsako putreana ez da eraso bakarra izan. Kelme kirol-jantzi-taketako enpresak jokalariekin zuen kontratua eten du, haren hitzak direla kausa. *Dejá vu, déjà vu*.

Jar dezagun 2006ko Viñarock jaialdia, Albaceten. Soziedad Alkoholika (SA) talde gaizto-gaiztoa kartelean agertzea-



**Soziedad Alkoholikak epaiketa irabazi ostean, beren jarduna normalduko ote zen ikuskizun zegoen. Erantzuna Almeriatik heldu zaigu eta ezezkoa da tamalez. Zentsurak bere horretan darrai**



gatik babesle guztiek euren dirulaguntzak bertan behera utzi zituztenekoa: Cutty Sark, Ron Barceló, Jack Daniels, Coca-Cola... Ez zutela indarkeria babesten duen talde baten alde xentimorik jarriko. Potroak gero, zeinek eta Coca-Colak! Hedabideetan apenas agertu den eta neuk ekarriko dizuet gogora, ustez Coca-Colak –SunTrust banketxearen eskuetik– Kolonbiako lantegietan tiroka isildu dituen sindikalistak. Zerrendako azkenekoa, Adolfo de Jesús Munera López. Baina ez da bakarra izan, zortzi omen dira dagoeneko edabe magikoaren makinariak hildakoak ([www.killercoke.org](http://www.killercoke.org)). Hipokritak!

Soziedad Alkoholikak epaiketa irabazi ostean –akusazio guztietatik libre–, beren jarduna normalduko ote zen ikuskizun zegoen. Erantzuna Almeriatik heldu zaigu eta ezezkoa da tamalez. Zentsurak bere horretan darrai, eta euskaldunok legena bagina bezala, nora joan han da zalaparta eta interes politiko-mediatiko zekena. Almeriako kontzertuaren irabaziak *Proyecto Hombre*-rentzat ziren, baina hauek ez dute diru hori onartu nahi izan, kartelean deabrua bera ageri delako. Berdin Itxaropenaren Telefonoarekin, biolentzia babesten duenak sorturiko dirurik ez dutela nahi. Kafkak berak ez luke adibide txoroagorik idatziko. Nora deituko dugu orduan, jazarriak izaten garen hurrengoan? **n**

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Prensaurrekoek, beti ere urdaila mindu didate, duodenuaren ultzerak berenak eginez. Eta gogoko izan ez ditudanez, ahal izan dudanean ekidin egin ditut.

Azkena, urrun samarretik jarraitu dudana Magalas herrian izan da. Kazetariak azeri tropa bailiran inguratu ziren bertara zelatari. Eta beren presa agertu bitartean festa egitera joandakoaren gibeletik ibili genituen erronkari. Binaka antolatua, batek mikrofonoa besteak kamera gure inguruan zebiltzan ez dakit zeren bila, guk ez genuen zerbaiten xerka. Galdera hemen purrusta han. Iritsi zen Filipe lagun ez inguratuta eta hala ere ez zitzaizkigun kalmatu. Oiloa

## Ez nauzue zalea

jan nahi zuten baina Filipek oilotik batere ez eta jangaitza suertatu zitzaien. Erran nahi zuena bota eta

bertan utzi zituen goseti. Nahi zituzten titularrak lortu ezinean, haserre joan ziren marmarka. Orduan hasi zen festa, maitatua den bati prestatutakoa. Ederra oso, arras gizakorra mitin publizitario ergeletatik urrun, lotsa nagusi. Ahanzten ez den horietakoa. Baina kazetariaren erasoak ez dira amaituko honekin, ziur nago ez dutela bakean utziko eta zelatan izanen ditu Beziarsen desterratuta dagoen bitartean. Eskandalua dute ogibide eta boterea lanabes. Berena lortzeko galdutako aukera ez dute ikasteko baliatuko, horretarako librea behar baita. **n**